Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko maiatzaren 7a, osteguna — 83 — Jueves, a 7 de mayo de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*2026ko Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaltzea*

2026ko apirilaren 30eko Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hau xedatu da:

*Bakarra.* 2026ko Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaltzea, eta 2026ko martxoaren 3ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Enplegu Publikoaren Eskaintzari honako plaza hau gehitzea.

Karrerako funtzionarioak:

— Euskaltegiko irakaslea (kodea: 0062).
*Eskala:* Administrazio Berezia.
*Azpieskala:* Zerbitzu Bereziak.
*Sailkapen taldea:* A.
*Sailkapenaren azpitaldea:* A2.
*Mota:* Erdi mailako teknikaria.
*Hizkuntza eskakizuna:* C2/C2 (4TP –Tekniko Profesionala–).
*Zuzkidura kopurua:* 1.
*Txanda:* Irekia.
*Hautaketa-sistema:* Lehiaketa-oposizioa.

Era berean, Hezkuntzako teknikari lanpostuari buruz 2026ko martxoaren 3an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako informazioa osatu behar da, eta hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data 2025eko abenduaren 18tik igarota dagoela adierazi.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa edo bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, aldizkari ofizial batean azken aldiz argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurrez aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, erabakia aldizkari ofizial batean azkenekoz argitaratzen denetik hasita.

Azpeitia, 2026ko maiatzaren 4a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (2999)

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Ampliación de la Oferta de Empleo Público 2026*

Por Decreto de Alcaldía de 30 de abril de 2026 se ha dispuesto:

*Único.* Ampliar la Oferta de Empleo Público de 2026, añadiendo la siguiente plaza a la Oferta de Empleo Público publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 3 de marzo de 2026.

Funcionario/as de carrera:

— Profesor/a de Euskaltegi (cód.: 0062).
*Escala:* Administración Especial.
*Subescala:* Servicios Especiales.
*Grupo de clasificación:* A.
*Subgrupo de clasificación:* A2.
*Clase:* Técnico medio.
*Perfil lingüístico:* C2/C2 (4TP –Técnico Profesional–).
*Número de dotaciones:* 1.
*Turno:* Libre.
*Sistema de selección:* Concurso-oposición.

Asimismo, procede completar la información publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 3 de marzo de 2026, en relación con la plaza de Técnico/a de Educación, haciendo constar que la fecha de preceptividad del perfil lingüístico se encuentra vencida desde el 18 de diciembre de 2025.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro que se estime procedente, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses desde su última publicación en un boletín oficial.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado el acuerdo, en el plazo de un mes desde su última publicación en un boletín oficial.

Azpeitia, a 4 de mayo de 2026.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (2999)

EK\CV GAO-I-2026-02999